

PATRI URKIZU

KONTAKIZUN LABURRAK



AURKIBIDEA

NOLA...

1. Zomorro ta Kazkazuri	5
2. Nola zarauztarrak eta getariarrak balea batengatik haserretu ziren.....	13
3. Nola buruhandia izarren artean galdu zen.....	21
4. Nola Munstro bat San Telmoko erakustegian noizpehinka agertzen den.....	27
5. Nola Joanes Harizpidek Matamoros goitizena irabazi zuen.....	35
6. Nola Maddi Beñatez maitemindu zen.....	41
7. Nola borrokatu zuten juduak eta moroak Unnen tabernan.....	49

ZOMORRO ETA KAZKAZURI¹

Despertadorea... tiiiiirrin... rrrrrrrr... tiiiiirrr ...

Gutxienez hogeitabost minutu pasa dira giltz-argitsua zanpatu dudan ezkeroztik, bainan hain goxo ta hain bero egoten da oyeañ!

Bart nere berokia oi-gaínean laja nuen eta pixua orain sentitzen dut.

Ez, alde hortatik enaiz jeikiko, beztela mayakin kanketako bat artuko dut eta. Ieupa! Bai edo ez? Ogeitabat kontatu arte enaiz altxako: bat, bi, iru, ... Urdin puxketa bat agiri da leyoak uzten duten ixkifietik, Otsaillan gera, bañan ala guztiz ere udaberria dirudi, bai! Goiko elizan, kantantorian amiamak bere kabi borobilla antolatzen asi dira. Gaur eguardian eguzkiak berotuko du ta hurgeskumiak: neska ta mutillak erriko enparantzan atso ta agureen modura berriketan goseari deituko diost. Alper hau! Gora! holaxe hai, ikusten duk: deusere ez duk kostatzen. Iaufa! Goraka bat eta kitto!

Goizero jimnasi pixka bat egingo baukek askoz ere liraiñago egongo itzake, ire tripaundi zorri hori ziara jetxita, beste planta bateko gizona, beste itxura neskaren aurrean prestatzeko. Bai, egia da! Galtzerdi abek motz-xamarrak dituk, korrika nabillenan beraka joaten dira, ene! Biñetako abek lehen hain txukun eta otain loi-zipliztiñez betiak. Ez dut lotsarik, eta noiz

¹ *Euskal Eleri* 69. Kriselu 7-8-9, Lur, Bilbo-Donostia, 1969, 425-436. Miguel de Unamuno ipuin lehiaketa 1968. 3. Saria.

garbituko ditut? Pasara on baten bearrianarkitzen di. ra, sortzi peseta ordaindu ezker oski-garbitzalleari berriro txukunak egongo lirate ta denbora puxka batean garbitu bearrik ez. Bañan nor aizala uste duk? Zepillo pasara bat eta gaurkoa egin duk. Olaxe izurratuko dituk bañan ... nor jarri burgesen moduan morroi batekin oñetakoak garbitzen? Lotsagarria henetan! eta ... hizar hori noiz antolatu behar duk? Baea, utzi zak, ixpilluari ez begiratu, beztela dembora galduko duk eta xamarra, giltzak, ille zikiñ hori atzeraka bota. ateari kolpekada bat eman eta bajo! ...

Banijoa ezpaloi bate~ aurreraruntz, mundu extu-extuan jo dut eta bertan ankazgora sartuta nago. Iñork ez du bezteren bizitzarik ikutu ere nahi.

Goizero esneketariak bere soldata etxez-etxe aterako du noski, heste saltzalle guztiak: periodistak, txurrerak, arraiketariak, frutalariak, ta danak joko dute here eztarriak hullaka arrién kontra. Bañan interesgarria: gauzak egunetik egunera garestiago dira.

Ibaya ta krocketak. Amets heti amets, danok gahiltza denbora pasa ...

Kalez-kale neska ta mutil talde batzuk eskuak alkar josita, begiradak hero, hatsan dijoaz euri bolara otz ta zikinpean. Kamiyuak zuloz eta loyez apainduak-herhill haundi ta pixudunak goizeri bere perr ilhik lodi ta borolullen zapaaztadakin zampatzen ditu galipot eta arr i txin txar ttiipi abekin egiñak diran baide zakarrak.

Gizonak, andreak, edonor bere soñekoak ziplizitiñez zikintzen diranian maldizro borobillenarekin ittutzen ditu eztarritik ateratzen zaizkion alix-madarik.atu-aluen ayrkako kakaloreak.

Orrela ha, erriko etxearen pentzakizunak-sekretarioarenak obeki esateko-garbi ta nazkagarri azaltzen dira.

Ura hai, urratu, odoldu err iaren nayak eta sentimendu guztiak bazka eta putzu itxusi, izugarri ta ir'ripar polittezeko hatean... Ez jakiñak ote?

Txorakerietan-kantu lelo ta zarpail batzuk abestu ezker, kanpora printza txiki hoyek bota ezker, kitto! sekuletako lasaiten ditun. Eta zer nahi duzu ba egitea olako eran jokaitzen dutenekin? Gauza1'ik errexena da bi gezurrekin aberi toteltzea, aba Irikiakin entzun eta lege hori jauregietan bakarrik kumplitzen dalakoan, ez uztela beñere entzun olakorik eta abar erantzungo dizute. Zoragarria da bai! The zulotan, kafeterietan, ka. bietan, kokolatea lasai artzen duten bitartean ixtar polit eta fiñak ikusi ta begirada bero batekin agurtzea, ez da motel! hausardia hori, ongi egiña baizik, orrela gauz ederren neurria artzen badakikela adierazten bai duk, besterik ez, motel! Udaherrian ez duk amoriorik igortzen, ta ori tipularen usa ya hezelakoa da, krizkitin-airri-zizkurr ikifia-eta urrun krabeliña, hain eder, bertan epaitutzerakoan, manitxi, marnitzu, erotzat, gogor kazkagor jokatuaz. Putzu batean erori, ta hantxe dantzan txoko be ro hartan, iru elefante aize otza zугurretatik botariaz, ez haizan ez adarrik eta gutxiago oraindik izarririk, ijIazkia epel dardar zegon eta khantoriaren karraxi latzak, mugimentuak mindura ipintzen zieten,

Erramon, Koldo, Mikel; Zelia, Itziar, Peru, danok ardoteği zikiñ batean txoko ttipi, aulki motz eta mai ezberdiñen inguruan. Bullaka, begiradak uker, agian iñork entzun zitezkelakoan eta ara! plan osoa argi ta garbi erakutsiko dizuegu:

-Emen zerbait egin behar da? Al, ahal, egin al diteke zerhait?

-Ixo! Ta entzun neri bururatu zaidana. Ez da naikoa lihurtegieta, ihiltzea ta sasi-poeta askoren idaztiak lapurtzea ta nardazkatzea, ez da aski bomba hat edo bi edozein tokitan aldrebeski jartzea edo izurriñ itxusi bat dibillen tellatuetan jartzea, ez! hori ez da neikoa! Baa zer egin behar dugu hortaz? .. Zuek ez duzute ez erreboluzionarioen itxurik ez deuse, ola ha, nere esbirroei bidaliko ditut aurretik, zuek ez ikaratu arren eta ainbeste berotu dugun plana, gaur gaben zuzenduko dugu. Entzun ha ongi: ... milloi bat dolare os tu behar dizkiagu. Ola gure horganizazioak bolara luze batean lasai

mugituko litzake. Begiak dizdiz dituzute, bañan hortarako bihotza legor eta ortzak kolonketarik gabe ibilli behar dira, eh! Bueno. Metralletak, kotxiak, mendiko mapak, ainbezte demboran izkututta egoteko janaria ta abar, paratuak al dira?

~Ez, oraindik ez, oso errexia izango da, gaberdirako dana lixto ta puntu-puntu egongo da.

Begira geroO'o, itzik ez atera! Ezta etxe harruan ere andreei, emakumeak badakigu zer diran lako gauzeekin, honera iritxi ta ordena dalakoan, galdu edo gaitzeko arrixkuan jartzeko prest dira beti. Itziar eta Zelia, hiok harkatu, zuek ez zerate beste emagalduen antzekoak, orrela ba kontuz!

-Mendi koxkorretan, gallurretik gallurrera jipoi galantak gere buruei emanaz, heup, beste errietan egiten ez diran bezelako entrenamientuak egingo ditugu. Bayetz marka jausi bi illahetetan larogei edo eundamarreko ibillaladian. Nork artzen dit apostua?

-Neronek, bañan diru hori jaso bañon lehen heste bat lapurtu heharrean gitxek, eta hau filmetan aza1tzen dan bezela, ez uzte babak prejutzea o dana handejan jarriko zaigunik ere, zahallagoa derizait, hortaz ha, artu ditzagun akaita ta dozenerdihat kopatxo lanari alai ta bizkor eusteko!

-Agur denoi.

-Ongi jua bihotza!

-Jajaj'ajijiji (marikoyen parrakin),

-Arrapatu hit, arratio zikiña, pizti nazkagarria, geure atzaparretatik etzera berriro bain ederki separatuko, nahi zenduen eran. Ar! horain oxti abek, to! Iñork ez dik kenduko, horaingoak-apaizkume madarikatu hori. Esne txarrean jartzen zenidazun arpegi uztel horrekin-cahroi-alu puta seme! Danak herdiñak zerate, txoxtxolo-alixak, ederki gaituk, horain herriz komunistarekin lagun jarri zeratela! ongi zuok. Nahi hezela hizi, orden ta hake eder hontan eta ektosolia eskatuaz! odol gutxi kostau balu-

ke hezela, hegira ahen esker ona: homhak ta molotohak jarri nahiean, gure gorputz illen gañetik ez hada ez duzute lortuko ez, nahi ha maite duzute, txoro eskatasunezko mito hori!

-Pin pim krak zis zas hum sist sastmfvxjdrta jo!

-Ahhjjjjyyyyjj ahjy!

-Egin karraxi, hai! Ixilik egon hazifizten horain ez zenduten hau sufritu beharrik izango. Egin kaso ta ipiñi ipurdia heltz hoyeiri, ederki asko hizi dituk ta ire andre gaxoa hakarrik, ez dakik nola kentzen dien emakumeak. N orengatik ago hain ongi? J eneralari eskerrak ta oraindik ormak margotzen dituzute txotxolakeri batsuk ezarriaz, ill dedilla edo iltzalle hat dalata, izugarri hori mozkortuta kalerdian esa ten ez dukenean. Horaingotik libratzen hahaiz ezhaiz kapax izango ezertarako ta ez duk indarrik eukiko ire potrouak jasotzeko, Lertu bat hiziko haiz,

-Nortzuk ziren zuekin joan ziranak gau hartan?

Esantzak, heztela txiki txiki egingo haut, puta! metra. lleta eta argieztaliak ez ditek hildurtzen Orixe iretzat ohehena askar hukatzea, hañan haditugu metoduak ugari ta ez presarik, mintzatuko haiz hai, lasai nago horrekiko, azkazalak, larrua aragimamiak eta ezurak noraño irauntzen duten ire kazk-agorra hortan ikusiko diagu. Badakik geure Kepa lagunari zer geratu zitzaion-kartzela otza dalakoan pleuresia gaizto hatekin, autopsirik gahe lurperatu hai zuten. Nik ez dit txarki haitatzen, Ire aixkire nahi dut izan. Gogoratzen al baiz nola txikitan alkar kaskatarra-hi kaniketan ihiltzen gitxen ... esantzak mesedez aguro beztcla erreatuta txikitu, elbarritu ta damuko haiz sekulako.

Handik amazazpi egunera Ines emakume gizarajoa, arropak origarritzat artu muen zitun, barrengolastiko ta mudak odolbeltzez txertatuak zeuden.

Zeru urdiña, illunabar gorrixta, maldabehera aurrak laisterka, ni erdian nintzen, hurua kolpeta ta anka asko inguruan. Biar arte jainkoak nahi badu! biar arte! agur! Bultzaka bata besteei egurrezko ateari mill kolpe emanaz, arri

tartean, oñetakoak loyetan ziklinduaz zaplaztaka, ai nor jezten dan lehenbiziko hidera, letrero hartaraño-zaldien irrintziekin hat bullak ugari gerrate moduko holara tarte bat, honetako eran irrixtalo ta pumpinpam, Nor izandu da? ni ez, ni es, zu hai, 'i bai i, nik ez dut nahita egin, bera hakarrik erori da, ik.usiko diagu hiar eskolara jutian ene!

Ikara, enbiria, gorrotoa, ez ez naiz joango. Piper egingo dut. gañera galtzazpiak urratuta dltut, ixter erdia ikusten zait, ez dut hesteen aurren parragarri azaldu nahi. Etxean ez da deusez esan hahar, heztela ikusiko dituk nolako zimiko ta mazallekoak emango dizkidaten. Lehengo egunean tronkotan Koldok gabierrota hat arrapatu omen zuen, egia hai, isatza luze-luze zeukan. papatxuan margo politak ta pikuan zulo ttipi bato Gomilla hatsuk erosi ezkerro ... ez Mireneri ostuko dizkiot jostorratzeko kutxan ego ten dira o heztela amari hi peseta kendu karteratik poliki poliki ta ez da enteratuko, edo ia lehengo goizean Jokiñen oipean xus mordozka haiek oraindik txoko hartan arkitzen diren. Zapaterongana joan eta tiragomas on hat erosiko dut, ez, osoak asko balio du-amairu peseta, txin txingomak bakarrik, larrua guaiziakin kartera zahar bateri puzka hat kendu ta gomak balon haren maxkuriari bi zerrenka ebaki bi luzeran, karraxkillo tartetik xardi zuzen bat Iabañakinmoztu, ta beste dana nik kompontzen badakit. Koldok zionez Karnaba baserri inguruan zezenak eta den ibiltzen dira lehen ta horaindik noizean hehin. Zcin ederra izango litzake ta nolako pparrak sorgiñak eskoba isatzean ta batzar hortan adarka asi beltzak batetik bestera, lar ta ospiñ zakarren tartera azkennez botako balituzteke!

Elur erdoitua hide xiurretan, zulo orixtasiko mutikoak lerro luzean ta irudiak asmatzen dituzte pix egiñaz zuritasun leguna urratuaz, Berebilak pasaren bi edo iru tontor zikiñ uzten dituzte, zipuak, kaskatarra-hi -begitik zipua sartuko duzu-beitik zipua sartukozu-btzpstkzu-askarrago aurrak kont! Txulo, bi kanika neretzat. Nei ez nei ez nei es Nerr ii, ta betiko sendi harrek

aurrerakoan Nerri izan zuten motea. Zuloak aunditzen dijoaz, loya besterik ez, ezpaloietan beste auto bat. Begirauhyy: peseta bat buzti-buztia, badut goxokiak erosteko-isatza muskerri moztuta, patrikan haren par tez urrengo goizean peseta eukitzen da-ba horaindik barrenderua ez da pasa, txakurrak kaka tartetanzerhait billaut nahian ezurrak agirian, otzikaraz ta bildurti. la nor dan askarrago kanika edo ni?

Perrilla ta makilla, jotajo, kankatakanka, ene ze zalla dan ziaboga ematea errebueltetan beti erortzen da.

Noizean hehin txirrindulari hat txapela helarrietaraño, txaketoyaren lepua jasota, irrixtatzeko hildurrakin, arrix ku aundia baidago. Zakurrari sayetzondora arri hat hota, ayyyyyhj zaunkada trixte, luzea illargiruntz otz dijoa, laixter biurtu, goxobero batsuk egin hizkar ta kopet ondean mimotzu ta gero tori: muturrian kanketako hat, betiko joan da, hizitzan ala jokutzen omen dute gizon pobreekin.

Ni dihiziyoetan aurrena nintzan, bañan kaligrafi txarra izak i, multiplikazioetan andereñoak irabazten zidan, nere laguna Dabid guapoago zan, ni zakarrago, hera fiñago nik eskuak tintez betiak narraxa, mukizu hat bera ...

Ni aunditzean-ministro dasuntos exteriores-bera-ministro de cartera-izango giñen. Larunabt arratsalde hartan Mirenek garbitu ta ongi orraztuta ixpillu aurrean apain-apain nintzen, atalburuan andereñoak muxu hat eman ta asterketako prolernak ongi ta lehenena bukatu. Ola iraun hehar nuen ba gizon aun di bat izateko ta ... Ze lotza! Irrixtalo kaketan, helar buztin hayetan, krisLal ta zikinzeizko hasurategi hartara erori nintzenian. Bakar-bakarrik negar ondoren hiyotztarrakin, galtzak aldatzera etxeratu nintzen,

¡Asto koxkor hat haiz, nun dituk hegiak, orkonpon! zcronek igerriko diezu zere huruari nola kontu. Uzte rluzu eskubiderik badagola 'egun osoan ire ama josten i retzat ego tea ? Cañera belaun urratu ta atzamarrez betr-ak, konkorrekoa kopetan aunditzen, horrela segitzen I'Z dizut utsiko ez, oker

znaz hori uzten haduzu. Illabete ososoa etxetik atera gabe jaiarratsaldeetan.
ta ixo! ...

Preso, hau dek komeria! ta zer arpegi jarriko dut errira irixtean? Espetxan egondu dan gizona zubitik behera ninjoakizuenean, nora begiratu jakingo ote duk? ezezik etxeak betiko tokian mugitu gabe ez ziran iñoiz mugitu, mugitzen eta mugituko ere ez, bere adimen ta ahalmen atzeratuak oker begiratuko didate, nolakoa ote da lehenengo iritxia? Aurreneko atxoeiri agurra ezin ukatuko diotet ba? T' -a zer esango dute marmar bere artan? Izagutuko al di date alproja ixtori ta itxura honekin?

- erri eroria, atzeratua gezurtia, erua, mozkorra, lañezatua, usteduan, zikiña ...

- erri kantoria, txotxolua, kakatzua, uztela, txikia, zakarra, zaharra, itxusi-tontua

- erri madariaktua, alixa, potririk gabekua, inbiritzua, Kain-en modukoa, zozua ...

- erri gatzgabekua, fabrikez kixkalita dagona, kiroltorik ez duna, sekretario kampoatar baten menpean dagoena, iñoiz ezer deusez egin ez duena, muzikako bandarik ez duan erria, alkate ta kontsejal denak salduak ditun erri alua, erri eroria, erri p ...

Zer ote duzu ba, horain zure askatasunengatik odola prest emateko banauzu?

**NOLA ZARAUZTARRAK ETA GETARIARRAK
BALEA BATENGATIK HASERRETU ZIREN²**

Behin batetan, ni oraindik mutil kozkor bat nintzela, igande goiza zen eta ohiturari jarraituz joan nintzen amona-aitonarekin meza nagusira. Meza bukatu eta amona bazkaria prestatzera joan zen, eta eleiz atarian aitona bere adineko batzuekin gelditu zen berriketan memento bat. Hauek agurtu ondoren abiatu ginen polikipoliki kai aldera. Itsasoa nahiko has arre zegoen orrumarruka eta taberna zahar batetan sartu ginen hotzak pixkat astintzeko. Neskamea inguratu zitzaigun eta galde egin zigun:

- Zer hartu behar duzue?

- Beti bezala. Salda, arraultz egosia eta basoerdi bat neretzat -erantzun zuen aitonak.

Eserita zegoen bitartean han nenbilen ni batera eta bestera ezin geldituz, eta hormetan zintzilik zegoen fotografia bat begira gelditu nintzen hain iruditu zitzaidan, bada, bitxia, eta jakin minak kilikatuz galdetu nion aitonari:

- Aitona, zeintzu dira fotografia hortan daudenak?

- Oh, Mikeltxo, hoiek Zarauzko arrantzale fama- tu batzu dira.

- Eta, zergatik?

² *Nola Kursaal berria suntsituzen*. Elkar, Donostia, 1984, 55-63

- Zarautzen agertu zen bale bat harrapatu zutela- ko, eta gero nonbait Getariarrek lapurtu zietela, eta, iskanbila galanta sortu zutelako.

- Nola, aitona? Kontaidazu.

- Beno, argazki hortako batzu neuk ere ezagutu nituen.

Eta aitona edalontziari zurrutadatxoa eman ondoren hasi zitzaidan kontu-kontari .

... Duela ehun urte baino gehiago oraindik euskal herriko itsas ertzeraino baleak jaisten ziren iparraldeko ur hotzetatik azken uneak bake atsedenean igarotzera. Mila zortzirehun eta hirurogei ta hemezortzigarren urtean, otsailaren hamaiketan, gutxi gora behera eguerdi aldean, orain bezalaxe, agertu omen zen hantxe, -aitonak hau esaterakoan itsas aldera begiratzuz behatzez adierazten zidan non- Mollarri deitzen den inguruan, balea. Atalaiatik begiralariak haseran ez omen zekien zer zen, izurde edo marrazo batenbat zelakoan eta ez omen zion kasu gehiegirik eman, baina ohartu zenean baporezko habe luzeak jaurtikitzen zituela, balea zela ere bai eta berehala kanpai guztiak airean jarri zituen.

Deiaren ondoren jende pila bildu zen hondartzan eta Molle txikian. Kaian kulunkan zeuden kolore bizi eta izen berezi zeuzkaten batelikoak, txanelak, txintxorroak eta txalupatxoak. Baina, honelako animalia puzkaren ehizara joateko txikiegiak. Marinel indartsu eta arrantzale iaioak beharko ziren ekintza hartarako, noski! Eta hantxe agertu ere gazterik sendo eta bulartsuenak. Treineru batean sartu ziren hamahiru, itsasoan ibilienak eta ezeren bildur ez zirenak. Xabier Kaperotxipi zihoan patroin, beti bezala, txapela kaskoan ongi sarturik. Eta Roke Etxabe ere bai. Honen bizkar zabalak, beso zaintsu, sasoia, ez omen ziren txantxetakoak. Besteak ferrolan eta eho fabrikan lan egiten zutenak, baina arraunlari trebeak. Denen artean koadrila ederra osatzen zuten. Bai, alafede!

Abiatu ziren, bada, balea ikusia zen alderuntz, lehenagotik edozer gauza gerta zekiekeenez, eta badaezpada getariarrei laguntzera joateko abisua pasata.

Erresaka nahiko zebilen, eta mareak bizi-bizi ziren. Bogan hasi zirenean txanpa bizkor bat eman zuten, urduri bait zeuden, baina gero arraunkada luzeago eta mantsagoan ihardun zuten. Eme ibili beharra zegoen, balearen buztan kolpez ontzia irauli eta denak urazpira joateko arriskua bait zuten.

Benetan bildurgarria izan zitekeen ehiza hura eta ikustaldia miragarria. Baina euskal marinela betidanik izan da izuaren etsai, eta X. mendez gero bale arrantzan, ehizan ibili da maisuki, holandresak eta ingelesak eta errusoak eta japonarrak agertu baino lehen. Udaletako harmarri askotan ere balea eta arrantzaleen borrokaren irudia agertzen da. Haik bai zirela garaiak! Gizona bere arpoi hutsarekin treneru soil batetik balearen aurka, eta ez orain bezala gerra itsasontziekin kai- noiekin eta guzti. .

Alle puntaldera iritsi ziren eta ordurako inguratzen hasiak ziren Getariarrak beste hiru trenerutan. Bi ehizan laguntzeko prest, eta bestea, badaezpada, zerbait gertatuz gero laguntzeko gertu. Honela gelditu zen Zarauzko trenerua erdian, eta mendebaletik Aizpuru patroinaren ontzia, sortaldetik Anton Arambarrirena eta noroestetik Berasaluzeren trenerua, zirkulu bat osatuz. Motriko eta Oriotik ere zenbait batel oihala haizean bazetozen, baina oraindik urrun samar.

Bapatean urazaleratu zen bere kopetako iturrietarik amasa hartzera Antonen treneru ondoan, balea. Hango garrasiak!

- Ea mutilak, bira ezker aldera!

- Hi, txo, zia ezak!

- Orain! Denok batera! Xanpa!

Eta Anton arpoilari iaioa omen zenak, izuaren eraginez edo olatuaren trabes ka zihoalako, edo auskalo zergatik, arpoia bota baina kolpeak potto egin omen zuen, dirudienez.

Berriro hondoratu zen balea eta hantxe denok, zain, begiak eme, arraunean jotake, itsasoan giro larri, kezka betea mantenduz, eta marinela oihuz:

- Haruntz doakik!
- Ez, honuntz zetorrek!
- Hor duk, hor duk!

Eta hantxe berriro azaleratzen da balea Kaperotxipiren treneru ondoan. Aurrean zut-zutik zihoan Roke Etxabe eta honek indar guztiekin, ontzia behar adina inguratzerakoan, zazta, bizkar ezurrean sartu zion arpoia. Balea zauriturik, hasarre, amorru bizian berriro itsasera arpoia eta soka luzea berekin zeramarik eta atzetik trenerua. Mollarri aldean, lehorretik zeuden zarautzarrak oihuka, bibaka eta txaloka.

Marrumarruka zebilen balea, minak hartua bait zuen eta buztana segadetan zerabilkien treneruak gora behera olatu bizkarretan zebiltzala arrisku handiz.

Arraunlari batek baino gehiagok barren barrenetik, errezoka eta suspirioka zebilen, buruan zedukalarik esaera zaharra, marinelen emaztea goizean senardun, arratsean alargun, etxean utzitako andre eta haurretaz oroitzen zirenez, zihur aski.

Getariarrak eta Oriotarrak hurbildu ziren ere beren urpoi zorrotz puntadunak erantsirik baleario Ekinaldi uahasi eta gatazka hartan arraunlari batek oreka galdu era itsasora erori zen. Hango builak eta zalapart isilezinak!

- Kontuz arraunarekin!
- Hel akiok sokari!

Bota zioten, bada, korapiloz betetako amarratzeko soka eta barreneratu zuten blast, busti-busti egina, aurpegia zurbil, pasatua, min zuriak hartzeko zorian, baina, bederen balearen bizarretatik aparte.

Orduak ohartu gabe zihoazen. Goibel zegoen eta hodeiak ere beren tartetik agertzen ziren eguzki printz ahulekin borro kan ari ziren etengabe.

Anjelusaren kanpaiak ere eleizko dorrean jo zuten eta denok berriro abemariaka bai lehorrean zeudenak bai itsasokoak. Treineruek osatzen zuten zirkulu borobil handia kolorez aldatzen zihoan, urdinberde ilunetik gorribeftzarantz.

Odol husten zihoakien balea eta isurki haiek noski, bararazi zuten animalia. Hainbat eta hainbat arpoikadaz josia bait zegoen, baleak arkaitzen kontra astindu nahian eta kendu entseitan ibili arre n poliki-poliki indar guztiak ahituak zeuzkala. Hil zoriak harturik zeukan eta azkenean marruño bat bota ondoren errenditu zen. Hila zen. Behin berriro euskal marinela itsasoko abere handienaren garaile gertatu ziren.

Ilunabarra sarturik zen. Noizpehinka ilargia hodeien tartetik irrifarrez agertzen zitzaien eta artizarra keinuz zebilen goi aldeano

Treineruak urez beteta zeuden eta xukatzen nahiko lanik ez bazuten, orduan bai hasi zirela elkarren arteko istiluak benetan.

- Geuk harrapatu diagu eta geurea duk.
- Geuk ikusi diagu lehenago

Indarka eta ia mutur joka Getariarantz ala Zarautz aldera eramane balea zebiltzan. Azkenean, Getariarrak gehiago izaki eta bere kairantz eramane zuten, edo abiatu ziren noizpait, gutxienez.

Lapurketa bat zela, eta ez dakit zer zela oihuka zebiltzan zarautzarrak lehorretik, eta alkatea irten zen txalupa batetan lagun batzuekin haien atzetik, eta alto ere bota omen zien, baina kasorik egin ere ez.

Kontxara heltzerakoan han zeuden karabinero batzu utzi nahi ez zutenek sartzen balea portuan. Baina Getariako alkatea ere ailegatu eta, Antonek kabomarra zela eta, itsasoan agintea zeukala eta, ez zuela inork geldiaraziko eta, azkenean sartu zen moilera. Eta honen atzetik balea eta beste denak.

Ez omen zen baretu hango zalaparta nolanahi. Harrikadak eta guzti ere izan omen ziren zarauztarren kontra. Batzu preso ere eramán nahi izan zituzten, baina ez zen horrelakorik gertatu. Zarauztarrek Donostiako komandantziara deitu eta hauek balea Zarautzera itzuli behar zela. Bere aldetik Getariarrek Ministro de Marina delakoari dei egin eta honek getariarrena zela balea. Eta azkenean tribunaletara jo zuten han hauzia konpontzeko asmoz. Lehenbizi Azpeitira eta han denen gustokoa erabakia atera ez zenez gero, Iruñera.

Eta bitartean hantxe kaiaren barrenean balea usteltzen, kirats higuin garri batez herri guztia beteaz, karabineroak zaindari zituela eta ez batzuentzat eta ez besteentzat.

Betidaniko herri txiki muga direnen arteko has arre ugariak piztu ziren berriro. Ordudanik zarauztarrek txoro fama daukagu, agian lehenagotik ere bai, eta getariarrek gezurtiena, esaera zaharrak nolapait adierazten lucn bezala, gezurra bota nuen Getarian ni baino lhcIII1HO zegoen etxeke atarian.

Usteltzen zihoakien arabera baleak gero eta gutxia~o balio zuen. Ez zen izan posible garai batetan bezala hnlckiaz baliatu jateko, edo abereen elikadurarako, cz rru balearen olio koipez zerbitzatu hortarako labe bei czirik ez zenez gero.

Azkenéan Donostiako udalak erosi zituen bale he/urrak bere arrain erakustegirako, parte zaharreko kai ondean dagoen ACUARIUM etxe eder batetarako, bcrtan denok ikus ahal ditzagun nolako hezurak zituztcn baleek, eta nolakoa zen Zarauzko balea, euskal balea cdo balena biscaiensis deitua, iparraldeko itsaso sakonetan eta izeberg izozti jelen artean gelditzen diren az kenetakoa. Neronek ikusia dut iraileko estropadak ikus tera joan naizenean ...

Ni aho zabal-zabalik egon nintzen aitonak istorio gertakizun hau kondatzen zidan bitartean ezertxore csan gabe. Aitona isilik gel di tu zen. Eskatu zuen bestc bcltz bat eta zurrutada batez golkoratu zuen. Gosaria ordain du eta esan zidan:

- Goazen etxaldera, bazkaltzeko ordua da eta. Mantso-mantso abiatu ginen, hondartzako paseia hi detik itsasoari begira, etxalderuntz, eta oraindik gogoan dauzkat aitonak abestu zizkidan bertsuok:

«Arpoia eskuan da korajez beterik
Roke Etxabe zegon aurrian zut-zutik
ez al zaio azaltzen balia urpetik
ezarri zion firme bizkar ezurretik
jendiak esan zuan: Orrenak egin dik!»

NOLA BURUHANDIA IZARREN ARTEAN GALDU ZEN³

BEHIN batetan bazen herriska ttipi bat karrika eta etxetto ttipiagoz eraikia. Kale baten izena Zubitxo zen. Bertako egoitzak hain ziren behe, jauzi bat egin eta balkoiraino igo zitekeela eta bestean teilaturaino iristen zela.

Serora, harakina, zapatagilea, otargilea, sakristaua eta tabernaria bizi ziren karrikañoa zen. Ia etxebizitza guztiak kare xuriz apainduak zeuden, leihoak margo berdez eta lorez estalirik. Horma batetatik piku adar bat ostoz hornitua irtetzen zen eta hau zegoen baratzera beste jauzi bat eginik sar zitekeen ere. Zapata konpontzaileak soto batean zedukan erremintaz eta oinetako pilaz betetako gelatxo bat eta eskailerak igoz, etxe hartan bertan, ganbaran, sendi hits, triste, txairo eta gizagaiso bat bizi zen. Eritasun berezi batek harturik zedukan sendi osoa. Urrikalgarri ziren benetan eta herritar guztiek halako so samin batez begiratzen zituzten. Aita, gero eta argalagotzen zihoan, aurpegia gero eta meheago, luzeago eta xuriago jartzen ari zitzaion, ezpain bien artean aho zulo txo borobil bat zabaltzen zihoakiolarik, amasa ezin harturik balego bezala. Zerabilzkien oin bereziak zapal zapal mugitzen zituen, eta karrikan zehar makurturik iragaiterakoan arima baten suspirioa zirudien. Eta halako batetan hatsik ezin hartuz gelditu zen, bi seme humezurtz utzirik.

³ *Nola Kursaal berria suntsituzen*. Elkar, Donostia, 1984, 65-71.

Hauen ilusio guztia zen pilotaz frontoian jolastea, orduak eta orduak, eta herriko jai-festetan buruhandiz jaztea, eta bere adineko mutil eta neskatil guztien atzetik maskuriaz korrika eta joka ibiltzea, izerdi patzetan lehertu arte.

Urte hartan hasi ziren iadanik han-hemen mendi gailur gibeletan, baserri inguruetan eta hauzo erdietan suak pizten. Arratsaldea garden, urdin, aratza gorristatzen zihoan eta bazirudien eguratsa eta zeruak gorituz erretzera zihoazela.

San Juan bezpera zen.

Herriko enparantzaren erdian makal zuzen, hestu, heze, Iirain, luzesta, gorago eta meheago zena landatu berria zegoen. Abarretan gerezi batzu eta ikurrina haizean. Harrapatzen zuenak sari bat omen. Mutiko batzu has ten ziren igotzen eta froga egin bezain laister behera erortzen ziren azala kendua eta xaboinaz irristalagarria jarria bait zedukan haseran makalak. Udaletxeko balkoian Euskadiko eta herriko ikurrinak haize enbataren konpasean kulunkan zebiltzan. Eleiz dorreko kanpaien brontzezko oihartzuna bailara guztietatik barrena urrunago eta apalago hots jario etengabea hedatzen ari zen. Plazara inguratzen ziren karrika orotarik haur multzoak, urduri, saltoka, oihuka, geldirik ezin egonez. Batzuek hauxe errepikatzen zuten:

Tilin- Talan

Donibanen kanpaiak,

Tilin- Talan

San Juan bezperan jaiak,

Tilin- Talan

Dorreko atalaiak

Tilin- Talan

Dantzari daude arraiak ...

Tilin- Talan.

Bapatean udaletxeko erlojuak zortzi kanpai hots jo zuen eta supanpaz batera hasi ziren txistulari eta atabalariak egunari zegokion doinua joz, ibilera mantsoz haurren zar ata ia ezin gainditurik.

Taberna atarian zegoen jendetzak irrino bat zegien han zeharka eta korrika semeak eta ilobatxoak ikusiz. Irten ziren, bada, alondigako harri mailaditik beheruntz buruhandi eta diganteak. Buruhandiak beren maiskuraz neska mutilen atzetik ea nor laisterren harrapatu, eta ea nori astinaldi on bat emano Lehenik, txinomandarin baten antza zedukan bigoteluze bat; bigarren, Afrikako beltz itxurazko bat; hirugarren, ameriketako indioa, eta azkena, drakulaz mozorroturikakoa.

Diganteak ere hasi ziren, aiton-amonak bezala jantzita, bira eta bira, dantza etengabe batetan pausu ti pi eta farregarri batzu emanaz, txistuaren erritmoaren arabera.

Kale garbitzailea hantxe zegoen frontoi inguruan, antolaturik zeukan erraminta berezi batekin, aho ertzetik puro bat irtetzen zitzaizolarik, eta noizpehinka honen suaz koheteak pizten zituela. Bana, bina, hirurna, pilaka. Bertan zebiltzan ere mutil koskorak kohete makila bila korrika joateko prest, eta zerura begira ea non erortzen zen jakiteko asmoz.

Agureak eta atsoak eleiz atarian bildurik ziren eleizkizunak, bezperak eta errosario saindua errezatzeraz barneratzeko prest ere. Gaztedia, tabernaz-taberna zebilen, politikaz, kiroletaz, bere gauzetaz gero eta ozenago mintzatuz, istorio zaharrak behin eta berriro errepikatu~, edo beste berrak baten bat ezin asmatuz, edo norbaiti harpa joz,

~rkupeta? dantzariak gertutzen hasi zuten bere dantzaldia, Gerrikoa, txapela, ezpartinak behar bezala 10tzen ~ta mol~atzen zeuden. Jendetza gero eta ugariagoa hurbiltzen an zen plazaldera San Juan bezpera ospatzeko asmotan.

Txistulariak herriko itzulia egin ondoren iritsi ziren e?parantzara eta hasi ziren alkate doinua jotzen. Lehenik aurrekua alkate jaunak dantzatu zuen eta

ondoren banan-bana zinegotziak oro. Gero, herriko folklore taldeak hasi zuen bere emankizuna. Hura bai zela hura dantzan egitea! Haien arintasuna! Haien gerria liraina! Inenetan ikusgarria zen dantzaldia. Miraz zegoen ia herna guztia halen jauzi eta bira, zango ailtzatze eta elkarren arteko mugimendu eta lortzen zituzten irudi ederren aurrean. Honen edo haren abiltate bereziaz komentariotxoak eginez.

. Eleizkizunak bukatutakoan irten zen eleizatik ile urrutako apaiz bat amitoz jantzirik eta esku batetan isopoa zeramala. Hitz batzu latinez eta euskaraz esan ondoren makala bedekaturik gelditu zen, agureek txapela erendu eta berriro janzten zuten bitartean. Kale garbitzaileak zuhaitz mugurua prestatu zuen zerrautsari su eman zion eta berehala aro berriari, udarari hasera eman zitzaion .

.. Dantzariak berri emanaldi ederra, bikaina, eta kalera bukatu zituztenean iadanik Benus artizarra ditzitari zegoen zeru izarztatuan.

Mundu guztia erretiratzeko hasia zen beren etxetarantz afal otordua iritxia zenez gero. Udaleko langileek gauzak garbitzen eta biltzen hasi ziren, eta horrela ohar-tu ziren nola irtendako buruhandi bat falta zen. Batak besteari galdezka ari arren inork ez zekien deusez.

Zabaldu zen herrian zehar buruhandi bat falta zela, herriko arlotea, eskubaloieko partidotan txartelak ipintzen zituena, atez-ate kirol elkartean kuotaren sosa biltzen ibiltzen zena, galdu egin zela. Hauzoz-hauzo ertzainak galdetzen zuen ea norbaitek ikusi zuen nonbait buruhandi hura. Erantzuna beti berdina zen. Ez.

Mendi gailur guztietako suak, bordetakoak eta hauzoetakoak itzaltzen zihoazen. Bat bakarrik zegoen eme, eta tente sutxinpartak boteaz. Abiatu ziren denak, bada, haruntz eta hantxe aurkitu zuten buruhandia etzanda suaren magalean. Nola ez zen mugitzen, kendu zioten pittin bat astindu eta gero mozorroa eta harri eta zur gelditu ziren haren irrino hotza, aho zabal eta begi

idekiak ikusi zituztenean. Hilik zetzan. Nekearen ondorioz bihotza kasu lehertu omen zitzaion.

Eta bapatean txinpartekin batera zero izartegian barrena izar galdu bat erori zen tximista bailitzan. Buruhandiaren azken suspirioa ote?

Harez gero, jai festa guztietan, buruhandiaren lagun kuttunena, tximu deitzen dutena, mozorroturik, neska mutil guztien atzetik maskuriaz jotake dabilkigu.

**NOLA MUNSTRO BAT SAN TELMOKO ERAKUSTEGIAN
NOIZPEHINKA AGERTZEN DEN⁴**

UDAZKENA. Azaroa aurreratuxea doakigu. AnaI saldea goibel, hits, malenkoniatsu, euri zaparradaz jo'la. Xamarra urdin marinela soineratu, ispilu borob.. Icun hire burua ikusmira, zimak eta betileak orrazts pultsikoan eskuak sar eta irten hadi karrikara.

Masailetan nabaritua duk itsas aldetik datorren haize ~. olpearen ihurtze hotz, fina, eta pausu arinez abiatzellii/.. Olatuen bizkarretan surfegile multzoa dakusakej, ~. uio beltzak antzo noiz eta nola uhin afarren zilarre. 1.111 trabeska irristala, dantza eta eror zaino

Kotxe piloak espaloin zikinetan dautza. Loretegi hu/f integri bihurturik dago. Kursalleko zubia iragaitz, r.ikoan zerbaitek kezkatzen hau. Itsasoruntz berriro beh.uzerakoan gauza xit estraino bat somatzen duk ~guI .usan eta barne ganbaretan. Mementoz argi diztiratnj 11.11 sortzen da garden eta irudimenaren itzurietan heI vusuge digante bat datorkik abaila guztian, Zurriola, 1:0 harratik Miramar aldera.

⁴ *Nola Kursaal berria suntsituzen*. Elkar, Donostia, 1984, 73-83.

Ez, hau ez duk arruntkeria bat. Zergatik sortuko aira IHIIIc\,a, noizpehinka, barne gazteluan irudi fanta9Ilta hauk?

Badaiteke gaur naturalezarengan nolapaiteko desorek~ bat gertatzea. Baina, ez. Hago, lasai, baketan. Ez ~adl kezka, ezpaítik pena merezi. Hala guztiz ere mesfidantza datorkik berriro, larridura. Begietan zerbait arraro eta arrotz izlatzen hasi zaik. Segundo batez pentsatzen ~uk hobe izan en dela, akasoan, hire pausoak atzera blhurtzea.

Alabaina, hi sekulan ez haiz beldurti izan eta ausardla lagun dukelarik baho aurreruntz.

Arratsalde orotako ohiturari jarraituz San Telmoko erakustegian ,ordu batzu pasatzeko asmotan hago. Aitzinako tresnena bitxi eta desarruntak begiratzuz eta dastatuz beste mundu batetaruntz ihesezin nahi duk. Asab~ zaharren lora ihartuak, emaitza, fruitu eta urratsak hireganatuz ea kimu berririk noizpait sortzen ote denentz.

Euskal herria karridak barne irudi kezkatu horien zurrumurrua eta zigilua oraindik isilarazi gabe kontenpl.atzen hau pasaian. San Vicenteko horma zahar eta l~lhar arrosa· borobilarri lirdin hez ea darie, organoaren oihartzuna dantzuk salmo gregorianoaren uhin etengabearen arabera.

Mutil atsegin batzu jolasean dabilta bere patineteet~n jirabíraj, ziaik batera eta bestera, harat honat harnzko plaza zabalean zehar eginez. Beste batzu futbol~an baloiari ostikoak eta beronen atzetik doaz. Neskatil xarmant zenbait bikoka, saltoka sokaren konpasean kantatzen dute:

«pinis-pinis

terro-sinó

tirripitina

ta-ti-nó.

Al español

el trangué

laregalé
muxulapa
delapasé.»

Benetan, ez dakik zer gertatzen ari den. Zehazta ezineko zerbait ari dela gertatzen bai. Baina, zer ote?

Burni landuz hornituriko ate lodia iragan duk. Atezainari arratsaldeon esan diok, eta ez dik erantzunik ere emano Ezagutu hau eta existituko ez bahintz bezala bere oesteko nobela tipia irakurtzen segitzen dik, bere zurlehiarrezko kaiola barnean, bista ia jaso gabe ere.

Ataria beti iluntasun batetan dagoena, gaur bestetan ez bezala, argi nabarmen batetan murgildurik zegoek. Urrutira piano baten nota tristeak entzuten dituk. Hil herrietako harrien pasadizoa gero eta hunkigarriago egiten zaik. Istoriaz betetako Anderregiko harri zuta, oroit harri borobilen hizketa dezifraezinaren oihartzuna nagusitzen da klaustro isilean. Bizitzaren eta heriotzearen misterioaz mintzo dira salmo errukarri monotono batez. Nork interpreta lezake, ordea, honen kanta, hainbat sinbolo ulertezinen adierazia?

Liburutegira igo nahiz sartzen haiz burni sare barneko igogailuan. Hire zama astunaz apur bat hondoratu duk eta bildurtzen haiz. Argia piztuz bigarren botoia zanpatu duk eta bahoia ezker-eskuin goralderra kable zaharren hotsarekin batera.

Bapatean gelditu duk aszensora harrizko horma baten aitzin-aitzinean. Hau bai dela kasualitatea, diok, hire barnerako. Boza altxa ala ez, dudan hago. Zanpatzen dituk botoiak eta trasto zahar hori ez duk mugitzen ere.

Azkenik, ausartzen haiz eta oiher dagik, boza jasoz. Inoren erantzunik ez. Gero eta garrasi handiagoak botatzen dituk, baina alferrik. Sekulan baino isilune areagoa zegoek. Norbait handik igaroko balitz dei a adituko luke, agian eta lagunduko likek, baina ez duk inor agertzen, atezaina ere ez. Urrutira soilik lehenagoko pianoaren nota tristeak.

Esperantza galtzen hasten haiz. Buruz, irudimenez jokatu behar dukela gehiegi aztoratu gabe, diok hirekiko. Adimenez portatu beharra dagoela. Honeia ia desesperaturik hagoenean, han hemenka oro ukitzen, derrepente ideki duk atea. Halere, aurrez-aurre harrizko hormak hersten dikioren irtetzeko abiabidea.

Zerbaiten susmoa berritzen zaik, harri haiek zerbait desarrunta dadukatela badakik. Hasten haiz berriro goiti eta beheiti oinetakoekin, belaunarekin, eskuekin, bizkarrarekin oro ukitzen, oinazez gelditu arte eta atzazkalak urratu eta odoleztatu arteraino. Akitzen hasia haiz, indarrak galtzen, baina ez duk amor eman nahi hire ahalegin guztietan.

Halako batean harriek bira dagite eta espiralezko mailadi bat darakuskiate. Pianoaren hotsa ozenago dantzuf. Bahoia mantsoki izialdurak herstuta, bildur pean, eskaileretan behera. Jaitsi dituk eta areto zabal batetara iristen haiz.

Gelako paretetan, zur landuen barnean koadro batzu, irudi arrotz ilun eta bildurgarriz hornituak daude zintzilik. Liburutegiko apaletan eta armiarmen sare zuriska artean hautsaz estalirikako pergaminozko eskuzkiribu zaharkituak, pipiak eta saguak zulozoz beteak, narru horixketan eta hizki arrotzetan idatziak.

Xoko batetan, leihoetako argi izpietarik urrun, buru urdin, ile luze, jantzi beltzez, pertsonaia bat dager, bizkarra emanez, esku nakareztatuz pianoa joaz.

Gero eta nota hunkigarriagoak, tristeagoak, sakonagoak, estrainoagoak, dematza pianoak. Ene oinetakoen hotsa zuradian nabarmentzen da, eta honela pia110 jotzaileak automatikoki bira eman dio buruari eta ncuri begira ezarri du begitartea.

Harri eta zur naiz. Duela urte bat ehortzi zuten bibliotekari zaharra baita, Eta ezpain biak idekirik bronI/czko kanpaien doinuz honelaxe mintzatzen zait:

- Hator, hator, honuntza, Mikeltxo. Aspaldian ikuxigabea haugu eta. Gaur ilargi betea dugunez gero fesla berezi batetara gonbidatu nahi haut.

Memento honetan koadroetako irudiak oro eni bella daudela, deritzat, algara, zarata, far eta irri izugaI riz beste mundukoak bailiran, abesten dute:

- Habemus vinum juvenem, sabati.

Min zuriak narama zerraldo lurrean etzatera, zentzurik gabe.

Mikelen ama gau hartan bere semea afaltzera garaiz iritsi ez zenean hasi zen kezkatzen:

- Gure Mikel non sartu ote da?

Eta marmarrean segitu zuen. Mikelen anaia Pellok, ordea, honela erantzun zion:

- Oraindik ez dira hamaikak.

- Ikusi al duk arratsaldean?

- Ez, baina bazkalondoan San Telmora joateko asmoa zedukala esan dit.

Hamaikak jo zuten. Hamaika t'erdia ere bai. Hamabiak laurden gutxitan gero eta urduriago zegoen ama eta Pellok esan zion lasaitu nahian:

- Zergatik ez diozu Anderri deitzen, ea bere etxean gelditu den estudiatzen, jakiteko?

- Baina, hori egin balu, gure Mikelek deituko zuen, bestetan bezala.

- Ez, du~u deusez galtzen deituz

- Bai, baina, hauek al dir a garaiak inora deitzeko?

- Bost axola! Konp 'ka garalak mora deitzeko?

ern o dute Et sailu nahi baduzu jo t 1 f . a, gamera, la- e e onoz nora it etxera edo bestela klaseko ikaski pa: era, Anderren

- ,Beno, emaidazu listina. de edonoren etxera. Deitu zuten bada Anderren etxe bai an erantzun zioten t . ra, ama ez zegoela

Ezetz, gauza axola h~:d~ e:b~erbaIt gertatzen ote zen. gabea zela bakarrík eta hg koa zela, semea etxeratu an ote zelak dei erantzun zuten.

Seguraski bad oan eitu zutela, agertuko zela eta ede 'k a, ba hurrengo egunean alixak! ' rra entzun beharko zituela,

Halere, biharamonean ez z Men arrastorik ere ez zen inondike? lkel a~ertu, eta halkaskide guztien etxera t 1 lIste.n. Deltu zuten bere dina, ez zekitela ezertx~:e ~::~~l guztIetan er~ntzun berparro askoren ondoren r' etaz. Azkenik, eta erreere izena galdetu eta ' po lZIatengana JO zuten eta han k . , ezetz han ez ze la i o lzenekin erantz " goe a mor horre- , un ZIOten eta m t D ik, Iadanik, aldizkarietara ber ~ oZ~', esesperatu- baki zuten hala nola j , e otografia bldaltzea erafonia ema~ez. a irranerara albiste, etxeko tele-

Aldizkarietan agertu zener tografia xit berria ez ' a o arunbata zen eta fo- Izan arren m d 'komentarioak egiten. ' un u guztía hasí zen

- Nora arraio .joan ote da hori inori ezertxore esangabe?

Iritzi maltzurrik ere entzuten zen:

- Seguru zoro hori Madrid aldera joan dela edo Bartzelonara "' , aur o gaztedia' G

htz, JIpoi eta astinald' 1 . ara! batean ba- etxeratzen denean 01 g~ antak .hartu beharko lituzke ngi merezlak gainera Fa '1' mlla /tia horrela kezketan utzi beharra! Guraso gizarauuk!

- Auskalo non den -zioten batzuek.

- Halajaina Mikeltxorekin! -besteek.

- Alproja bat balitz. Baina hain mutiko zintzoa eta I orrnala izaki eta nola daiteke hori egitea etxekoei? - Espabilatzen hasi ote da, bada, Mikeltxo? - loten bere adineko nesken batzarreetan, irrifarrez. - Bai zera!, zerbait gertatuko zitzaion, seguru!

- Ez hadi jar hain trajika, neska!

Hauek eta beste hone1ako mila iritzi ematen ziren parte zaharreko kaleetan egiten ziren arratsalde oroko Ixikiteo orduetan xirimiriaren

kariziapen, eta arkupetan. Hau zela edo ez zela, ez zuten inolaz Mike1en bel ririk ukan ah al.

Larunbat eguerdia. Bazkalondoan, etxeko denek esperantzak, iadanik, galtuta zeduzkatenean, tristura handi bat familia osoan nagusitzen zenean Pellori ideia bat gogoratu zitzaion:

- Eta zergatik ez joan San Telmora, berriro, zerbait badakiten galdetzeraz? Gaur arratsaldean idekia egonen da ere, eta gaur zortzi hara joatekoa zen Mikel. - Beno, ez dugu ezer galtzen han ere galdetuz, eta hi eta biok joanen gaituk -erantzun zion aitak.

Abiatu ziren, bada, aitasemeak kezka eta etsiak harturik San Telmoko erakustegirantz. Arratsaldeko laurak. Bidean betiko mutil neskatilak topatu zituzten bere patineteetan jirabiraka, eta futboleak eta soka jolasean. Atea idekirik zegoen. Atari itzalean sartu ziren. Atezaina oesteko nobela bat irakurtzen ari zen. Atentzioa deitu zioten eta Mikeli buruz galdetu. Atezainak erantzun zien baietz, noizpehinka etortzen zela handik, eta beti berandu arte gelditzen zela, azkeneko memen- toraíno eta atea hersterakoan irtetzen omen zen.

- Faborez, Iagun iezaiguzu ongi begiratzen sala guztiak, gure semea etxetik falta dela zortzi egun badira, eta azkeneko berria hona zetorrena da eta -esan zion aitak.

- Ene, bada. Bai, bai. Itxoin ezazue pixkat. Hartu zuen «itxíta» iragarkia eta atean estekatu. Ondoren giltzez itxi zuen kanpoko atea, eta giltz mordoa hartu zuen eskuetan.

- Ahal dudan neurrian gogo onez lagunduko zaituztet -esan zien.

Hasi ziren, bada, ate guztiak idekitzen. Salak eta armarioak banan-banan aztertzen. Margino eta kutxa zaharrak zabaltzen zituztenean hautsez horrakatuak gelditzen ziren eta errezo antzeko marmar ahozpekoak botatzen zituen atezainak.

Ez zuten inon ere ezertxo aurkitzen. Halere, pertsonaia estraino eta gauza arraro guzti haiek, hainbat eta hainbat harma gerlazkoak errespetoaz gainera bildurra sorrarazten zien. Oro omen zegoen behar zuen lekuak kokaturik. Komentarioen artean oroitu zitzaion atezainari esa tea nola Mikel eta Bibliotekaria, zuela urte bat hil zen eta ehortzi zuten liburu zaindari zaharra Iagunak ziren eta elkarrekin solasean egotea asko gustatzen zitzaien, beraz, liburutegiari azken begirada bat botako ziotela.

Hartu zuten espiralezko harri mailadia. Burnizko giltzaz atea ideki baino lehen piano nota batzu entzun zituzten, baina inork ez zuen ezertxo ere komentatu barne asmamen bat ote zelakoan.

Atearen sarraila nahiko zaharkiturik zegoen, baina azkenean hots herdoildu batez zabaldu zen. Izkin batetan pianoa hertsirik zegoen. Pertsonaia famatuen koa-

.11 oak beren betiko lekuan zintzilik. Gauza bakoitzak hcrea zuen kokadura eta egonlekua zeukan. Ez zen ezer uubarrnenik somatzen. Soilik, Pellok, ongi dena beha\1 ondoren eta belarriak eme pianoaren noten eraginez, heste biak deituz esan zien:

- Zatozte, zatozte, hona.

Zurezko oholen gainean oso pittika odol tanta baI zu lehortuak nabaritzen ziren eta ia konturatu ezinezko pertsonaia baten urratsa, itzal irudia bailitzan.

**NOLA JOANES HARIZPIDEK MATAMOROS GOITIZENA
IRABAZI ZUEN⁵**

Mila berrehun eta zazpigarrenean, martxoak hamazazpi, jaio zen Baztango herritxo baten dorretxean, ez naiz oroitzen non, Joanes Harizpide Zozaya.

Txiki-txikitandik borrokarako abilitade berezia erakutsi zuen, auzoko mutil koxkor guztiak harrikadaz eta ukabilkadaz begiokertu eta burukonkortzen baitzituen, eta, beraz, jaidura eta joera nabarmen haren aurrean erabaki zuten aita-amek, herriko apaizaren baimenarekin, har zezala armadarako ofizioa, eta horretarako behar ziren ikasketak Iruñeako gortean egin zitzala.

Prestatu zion, bada, aitak kutxa zahar batetik ateratako ezpata erdi erdoitu bat, eta hantxe joan zen erresumako hiribururantz mandotzar baten gainean, bidelagun Baionatik zetorren Joanes Undiano ardosaltzailea egokitu zitzaizolarik. Honek berekin zeramatzen hiru asto zamez eta zahagiz ia leherturik, berea zaldi zuri eder batek zeraman bitartean.

Bazihoazen patsadatsu berriketa irrigarri batekin ardosaltzaileak Lapurdi aldeko ostalersen hamaika kontu lizun kontari, Haizpea deitu hestura batean hiru bide-lapur gaineratu zitzaizkienean. Hantxe joan ziren denak lurrera

⁵ PAMIELA, 14, 1992, 41 HUR.

zilipurdika, baina Joanes Harizpidek berehala menderatu zuen bere kontrarioa ezpata odol beroz gorritatzen zuela. Ondoren, joan zen jauzika ardosaltzailea laguntzera, baina hau zauri larriz hil-zorian baitzen ezina izan zitzaion laguntzea, halere, beste bi lapurrak hantxe bertan utzi zituen zerraldo odol putzutuan igeri.

Inguratu zitzaion, bada, Undianori eta honek arnasa hestuz arren eskatu zion zaldia, astoak eta zamak Iruñeako parte zaharreko ostatu ezagun batetara zuzen zitzala eta bertako alarguna ongi zaindu zezala.

Denbora laburraren buruan, berehalaxe, fama handia hartu zuen KATTALINENEA ostatuko mutil gazte hark, ez baitzen gaurik igarotzen bertako sesio eta haserren ondorioz, Kattalinen edertasuna aitzaki, norbait muturrak hautsita eta begiondo ubelez bertatik atera gabe, azkenean beti Kattalin arartekosa lanak egin beharrean aurkitzen zelarik.

Hala bada, behin Thibaud Laugarrena gurutzadetarako prestatzen ari zelarik, Kattalinen ostatutik pasatzerakoan ezagutu nahi izan zuen gure Joanes. Nafar ardo gorria txarrotik edaten zuela zurrutada luzez, hain gogoko iruditu zitzaion baztandar sendo hura esan ziola:

— Nahi al duk nerekin Orientera abiatu, Jerusalem moroetatik libratzera?

— Bai, jauna, berorrek agintzen duena da nere gogo eta nahia.

— Prest egon hadi, bada, bihar goizalban partituko gara eta.

Mila berrehun eta hogeitahirugarrena zen eta apirilaren hogeitahamaika bizkarra eman ziotenean hiriko murrailari, eta aste bateko bidea egin. Ondoren iritsi ziren Baionako portura.

Bertan arraza eta hizkuntza ezberdineko jende multzo izugarria zebilen batetik bestera. Goiti eta beheiti, kupelak, zaldiak, janari zakuak igo eta jeitsi, ohio eta karrasi, kaietatik itsas-untzietara, zenbait arraunlariren arraun eraginez bateletan inguratzen zirelarik.

ZARRANTZAKO AMA deitu belari handi batera igo zirenean hantxe zegoen kontramaisua bertako mutilei oihuka eta galdezka:

- Hi, Martie, behatu al dituk goiko sokak?
- Bai, nausi, ongi soegin diegu goiti-beheitiei.
- Ongi al zeudek, bada?
- Bai, belak eta tilazpiak ondo tenk lotuak gelditu dira.
- Eta gaztelu partea?
- Baitare.
- Badakik ez zaukula komeni deus ahazterik.
- Sotoa eta ganbarak ikustatu ditit ere eta ez da deusere falta, dena ziok bere lekuan.
- Eta aingurak?
- Bistan ditiagu, garbi eta prest bere kate eta guzti.
- Beraz, dena ongi arakatu eta ikertu duka?
- Bai, jauna, bisitatu ditiak zoko guztiak eta partitzeko moduan giaudek.

Kapitanaren ordenarekin batera belak hanpatu zirelarik itsasoaren azal urdina ebakiz kostarik urruntzen joan zen gurutzatuen itsas-untzia beste zenbait lagun zituela. Irteteko mementoan Joanesek ezpata tente ipini zuen ekaitzaren aurka errezo eta juramentua eginez ogia, ardoa, eta gatzaren gainean:

- Ogi, ardo eta gatz hauen gainean juratzen dizut, zeruetako jauna, bizirik itzultzen banaiz Aralarrera igoko naizela belauniko eta bertan urrezko bi ontza eskainiko. Beraz, finean bidaia ona egiteko grazia egidazu uhinen manatzaile handia! Amen.

Baratxe, poliki, mendi urdinen lerroa fintzen, urruntzen, ezkutatzen joan zen, barku multzoa bakarrak gelditu zelarik zeru-uren artean orratza eta goi izartzatua zituztelarik gidari bakarrak.

Bela hedatuak, kaio xuri zenbaiten hegalak ziruditen, eta pilotua bozkarioz beterik ikusten zen uhinen kulunka ez baitzen beharrezkoa baino areagoa. Hiru ordutik hirurera guardia aldatzen zen gazteluan eta mutil berri bat igotzen untzi mastako saskira. Maprezeko mamutzarrak idekitzen zituen

uhinak zilarrezko bidean, noizpehinka arrain jauzilari bat agertzen zelarik untzi ertzetan.

Hiru hilabeteren buruan iritsi ziren Damieta Jerusalemeko bidean porturik garrantzitsuena omen zen hiriaren aitzinera, eta hantxe gelditu beharrean aurkitu ziren denbora luzean. Mezulariek zioetenez Joanes Brienneko alabarekin, Yolanda ederrarekin ezkonduberria eta, beraz, hiri sailduko errege bilakatua zen Federiko enperadorea bidean zen eta hauen esperoan zeuden.

Denboraren iragaiteko eta ezpataren zorrotza frogatzeko erabaki zuten Thibaud Laugarenaren gerlariak eta beste erregeenak Damietaz jabetu behar zutela eta horrela, mila moro ezpataz pasa ondoren, haurrak, atsoak, agureak barne, hala nola neskato gazteak bortxatu ondoren, sartu ziren hirian.

Bertako jabe eta nagusi zirela iritsi zen enperadorea eta mila berrehun eta hogeitazortzigarren azaroaren hondarrean itxoiten zioten itsasuntziekin batera Jaffako porturantz abiatu zen.

Enperadorea, bakezale baitzen, itun batez Jerusalem, Bethleen, Nazareth, Saida eta Tibnineko gazteluaz jabetu zen odolik isuri gabe Hiri Sailduko mezkitak zeuden Haram ach-Charif-eko auzoa musulmanen eskutan gelditzen zen bitartean.

Enperadorea, arabezale baitzen, moroekin arabez mintzo zen, eta behin nola apaiz bat ebanjelioa eskuan mezkita batean sartu nahian zegoen esan zion haserre handiz:

— Zerk hakar hona? Jainkoaren izenean, zuetako bat nere baimenik gabe sartzera ausartzen bada begizuloak hustuko dizkiodala!

Apaiza erretiratu zen dardarti baina begiokerrez eta kopetilun.

Enperadorea, musikazale baitzen, beste batean nola Kadiaren aginduz gauean moezinak isilik egon ziren, biharamunean esan zion honi:

— O, Kadi, ene lagun maitea, zergatik ez ditut bart moezinak entzun errezura deituz?

— Nik debekatu ditut zure majestatearen errespetuz.

Erantzun zuen Kadiak, baina enperadoreak honela ihardetsi zion:

— Gaizki egina, gaua hemen igaro badut, batipat moezinen gau kantua entzuteagatik izan da eta.

Enperadorea, artezale baitzen, bisita jauregi nagusiarri egin zionean ikusirik kaiola bat atarian galdetu zuen ea zertarako zuten han hura, erantzun ziotelarik txoriak bertan sartzetik eragoztearren, honi erantzun ziolarik:

— Bada jainkoak zerriei atea idekita utzi dizkiela pentsatze hutsak sutan jartzen nau.

Noski, zerri franko haiek ez ziren batere pozik arabez eta ez giristinoz mintzatzen zen enperadore exkomunikatu harekin.

Ez beltzak eta ez txoriak konforme ez zeudenez pertsona baketiar eta kulto harekin, 1239. urtean an-Nasserren asaldamendu baten ondoren erretiratu behar izan zuten Orienteko parte hartatik enperadorea eta bere tropek.

Hala, hamazazpi urte atzerriko itsaso eta bideetatik iragan ondoren iritsi zen sorterrira Joanes Harizpide Thibaud Laugarrenaren ezkutaria, honen mila soldadoak hirurogeita bostetan urrituak zirela.

Iritsi zen bada KATTALINENEA ostatura, eta bertako etxeko andere zabalak ez zuen ezagutu mila zimur eta zaurien ildoak aurpegi bizardun haren jabea nor zen. Agureak putzu sakon batetik irteten zen ahots dardarti batez esplikatu zionean Joanes baztandarra zela besarkada luze etenezinean pausatu ziren.

Baina nola gazte garaiko harro aireak ez zitzaizkion ttipitu areagotu baizik, bere Afrika eta Asiako azainak kontu-kontari egotea laketago zuen ardo kupelak eta zahagiak sototik higitzea baino, ostaturatzen ziren bezeroak otordua bukatzeaz zenean geldatzen zioten.

— Hi, txiribogin, kontaiguk nola hil hituan moro haiek Damietan.

— Hi, matamoros, kantatzak moezinena.

Joanes Harizpide Matamoros, eztarria ardoxorta zenbaitez garbitu eta gero boza goraz hasten zen kantari:

Mila berrehun eta hogeitalauian,
Soldado sartu nintzen ustez zorionian,
Zerbitzatu behar nuela erregen kortian,
Emazte ederra utziz Iruñeako herrian.

Ah, ahaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaa,

Moezinak gauero kantatzen zitian,
Kanta xarmant ederrak izarren bidian,
Eritasun gaitz batek kozkatu gintian,
Eta hark pozoiturik naiz zorigaitzian.

Ah, ahaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaa,

Damieta portua, Afrikako aldiari,
Hiri-Portu ederra da bakean denian,
Hantxe hamaika moro modu itsusian
Nere espataren ahoz akatu nitian.

Ah, ahaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaa,

NOLA MADDI BEÑATEZ MAITEMINDU ZEN⁶

Ene Beñat maitea,

Errezibitzen duzunerako igorten dizudan gutun luzexka hau segur nauzu erditurik izanen naizela, Jainkoari esker, hain amoroski sortu genuen bion fruitu kuttunaz. Medikuak dionez, ongi gaude biok osagarritz eta zu ere berdin halaxe izatea desio nizuke.

Zein izen emanen diogu? Maddi, neska bada, neu bezalaxe, hortan ados geunden; baina mutikotxo ateraz gero, eta ematen derauzkidan ostikoen arabera arronka botako nizuke mutil barrabas bat izanen dudala, zein? Badakízu, ongi jakin ere, zure izena arrunt maite dudala. Beñat, Beñat. Baina zuhaurk aitaxirena hobesten zenuen. Joanes, Joanes. Zer erabaki? Zein hautatu? Biok hain zaizkit laket, eta hain ditut gogoko bi izenok! Beñat, Joanes ...

Hoberena ez kezkatzea izanen da, eta garaia iristen denean erabakitzea, amatxi Margaita ere hasi baitzait errepika berea ere oso pollita dela erranez. Baina baditut une honetantxe arduratzen nauten arazo inportantagoak eta horietxez mintzatu nahi nizuke.

⁶ “Arnegi 1945”, Lezo, 15, 1995, 40-44.

Gerra madarikatuak, noizpait amaituko ote da, behartuta eraman zintuenean nere ondotik, -egia da ere gerrari esker ezagutu zintudala -, joan zintzaizkidan une beretik herriko gazte zenbait, Mikel aitzindari zutela gibeletik hasi zitzaizkidan mement oroz, nehoiz lasai eta bakean ez nautelarik uzten.

Badakizu, gure harremanen hasieran kontatu nizun bezala, Mikel eta oso gazte ginelarik, ia haurtxo, eta auzokide, bi amoranteren gisara beti, elkarrengandik inoiz ezin berexiz. Baina haurkeria hura zeharo ahantzi nuela aspaldi, gaztaroan sartu bezain fite, eta ja zu lehen aldiz ikusi zintudan mementotik guztiz zokoratu nuela. Badirudi, aldiz, orduz gero amodio etsiaren sukarrak zoraturik daukala Mikel.

Duela igande batzuek, ostatua jada itxita eta aspalditxo ilundua, gauerdia iren, zenbait lagun bildurik eta jada amo gorri nafarrez kazkoak nahasirik zituztenean ene leihoperat bildu ziren oihu garrasi eta irrintzinaka, errak toka, adarrak errepika, ahapaldi lizunak kantatuz, alaman etsai, boxe alu ihesi egin batek izorra ninduela eta horrelako nazkagarrikeriak zerabilzkiten irri karkailez, lapiko hotsez eta katu marruz homiturik.

Buila eta zalapartaz auzoa esnatu ondoren joaleak joaz erretiratu ziren, klon-klon-klon, noizpehinka berriro irrintzi eta oihu higuigarri hoiek gau ilunean haizeratuz.

Erran nahi dizut zintzarrotsak egin dizkidatela eta badirudiela, zarata likits horiek aski ez dituztelarik datorren igande gauez galarrotsak pairarazi nahi dizkidatela berriro zerbait gaiztorik egin izan banu eta ez dakit zein bekatu astunen errudun banintz bezala. Eta nere bekatu bakarra, ongixk:o dakizunez, zu maitatzea izan da, eta da.

Horrelako egoera tamalgarria ez nezakeen luzaro sofritu, ezta ere ostatuan zerbitzen nengoela entzuten eta ikusten nituen gazte eta zaharren komentario eta irri gaiztoak. Aita eta ama jabetu ziren ene sofrimenduez, gaur oroz isilean negar-sotinka, malkoz urturik.aritu bainintzen.azkenean betzulo ubeletan nabari zitzaidalarik eta aita bihotz gogorrekoa izan arren, joan zen

amaren eskaera hanitz entzun ondoren adiskidea zuen auzapezarengana galdezka debekaraz zezan gau eskandala hura.

Auzapezak erantzun zion, bera ere ohitura basa haren kontra, inor iraintzearen aurka zegoela, baina zail ikusten zuela oztopatzea ekintza zatar hura usadio benetan zaharra zenez eta gaztediaren oso kostuma maitea. Bertzalde, gau-ilunean gertatzen zenez gero ezin zitekeela jakin nor ziren koplari mihi gaizto haiek. Haserrearen haserrez erantzun zion aitak. Ez bazuen debekatzen eta galerazten eskandala hura jendarmak deitzen hurrengo okasionean, auzitara eramanen zituela galarrots egileak, baina jaun merak, alkateak honakoa ihardetsi zion:

- Eme egon adi eta ez kexa, ez baduk familia osoa kolaboratzaile bezala salatua izan dadin. Hobe hukek, beraz, ohore kontuak alde batera utzi eta duela urte batzuek Polliteniako Indianoak hemezortzi urte zituen Elixabet Hiribamerekin ezkontzeko egin zian bezalaxe afari on batez gaztediaren isiltasuna erostea. Badakik, gainera horrelako zergak antzinako ixtorioak direla eta zail dukela aldatzea usadioa ...

Damu naiz orain hori ez egina. Balere, uste dut Mikelen zoramenak eta etsiak sorrarazten dio n gorrotoak horrela ere ez lukeela konponketarik eta ez litzatekeela bere isiltasuna erosiko ez sos, ez amo kupela batzuez.

Aitatxi Joanes joan zitzaion ere, baina alferrik, eta azkenean ezkondu gintuen Betiri Narbaitza apez xaharrarengana jo zuen, eskatuz hurrengo igandeko Meza Nagusian, sermoiaren garaian pulpitotik salatu zezan bidegabekeria hura, baina honek ere ez zion kasurik egin. Alu madarikatual Barka nazala Jainkoak hitzok erabiltzeagatikan baina halako amorrazioz betetzen nau gizon horren zurikeriak ez naitekeela isildu. Gero hor ibiliko da saildu itxurak eginez, elizan gora eta behera, denok dakigunean zein nolako tratuak dituen bere serora Maddalenekin. Noski, ez du deus adierazi nahi arazoaz, Mikelen osaba baita. Igandero jauna hartzera hurbiltzen natzaiolarik

zazpi ahal handi egin beharrean aurkitzen naiz nere onetik ez ateratzearren, eta barkamena eskatzen diot goiko Jaunari bihotz-bihotzez.

Lehen aldiz erran nionean biok ezkontzera gindoazela, kopet ilun behatu ninduen eta zakarki galdetu zidan:

- Badakizua ezkondurik denentz?

Eta baiezkoa erantzun nionean, paper agiriak neuzkala esku artean alemanez eta frantsesez itzulikatuak, mutur-ezpainak estuago eta kopeta goibelago ipini zitzaizkion.

Nik uste inbiri hutsa zela. Ezin jasan zezakeen beribilez elkarrekin egiten genituen ibilaldiak, guretzat frontera zabal-zabalik izatea, eta bere kontrabandarako itxita.

Oi zein egun ederrak ezkontza eguna eta ondorengo haiek eta zenbat aldiz gogoratzen zaizkidan!

Goizeko seiterditako Mezatan esposatu genuen elkar, baina bi oren lehenago batera eta bertzera nenbilen dena paratzen. Zu ere zein dotore zeunden goiz hartan! Gosari ttikia egin eta Nafarroan behera abiatu ginen zure beribilean. Luzaide eta Ibañeta mendatean barrena. Nola motorra gelditu eta bidertzeko loreak bilduz eskaintzen zenizkidan potez eztituz. Nola Orreagako kaperatxo liluragarriari bisita egin ondoren iritsi ginen Nafarroako hiri nagusira, Iruñeara San Fermin egunez. Larunbata zen eta karririk jendez mukuru. Katedrala ere berdin. Han zeuden beren jantzi dotorenekin gremioak, kofradiak, apez multzo pila, militarrek, Udal etxeke agintaria auzapeza buru eta Olaetxea deitzen omen zen apezpikua. Pulpitotik sermoi luzea ari zen botatzen Don Juan Mugueta kalonjea. Irten ginenean handikan, eguzkiak gogor jotzen zuen, bero sargoria genuen eta Takonerako belardietarik ibili ginen bandak kontzertu bat ematen zuen bitartean, gero, Plaza del Castillo-n itzulinguru bat egin ondoren Europa jatetxe ederrean inoiz baino hobeto jan-edanez. Dena zen txuri-gorri egun hartan, bozkario eta irri, gazteek eskaintzen zituzten jotas deitu kanta goren artean.

Nola bertze batean; zuk aídégm bamo nogeiren bat lehenago, abuztuaren hasieran Miarritzetik, kostaldeko lerroari jarraikiz, itsasoaren urdina begi nínetan, eguzkiaren ezta bizkarretan gozatuz, Donibane Lohitzune, Hendaia, eta azkenean Donostiako hondartza paregaberaino iritsi ginen, Londresko Hotelean bazkalduz. Joana eta ni, Beñat eta Ernest. Edo hobeki erran, Beñat eta biok, une haietan zuretzat bakarrik baitziren nere so eta begirada guztiak.

Eta nola Alderdi Eder zeritzan tamarindondo arboladi baten ingurutik paseatu genuen elkarri besotik hartuta, arratsaldean Kursaalera jauregian Von Bande, Berlingo Filarmonika zuzendariaren omenez Donostiako Orfeoia eskaini zuen musika emanaldian izan ginen. Nola geroago irteeran, dantzarien arkupeetik igaro ondoren agurtu ninduen agure errespetagarriak. Nola errepikatzen nuen etengabe hark zuzendu zuen abestalde miresgarriaren kanta bat, alegia, Haendel-en Alleluya.

Haietxek bai izan zirela benetan alaitasun eta amodio sentimenduz betetako egunak! Buruan dauzkat oraino hoteleko balkoian geundela, ilunabar unean, oraindik berehala estaliko gintuen zeru izarztatu eta ilargi betea iristear, uhartea eta uhinen marru etengabea entzunez behin eta berriro kantatzen zenuela Goethe-ren poema hunkigarri huraxe:

Vor mir den Tag, und hinter mir die Naecht.

Den Himmel uber mir, und unter mir die Wellen.

Ein schoener Traum, indesse die Sonne entweicht!

Faust (erwaehendt): Bin ich denn abermals betrogen?

Eta euskarara, hainbertze maite zenuen mintzaerara itzularazi zenidan, elkarrekin kantatu eta ikasi artio:

Aitzínean Eguna, eta gibelean Gaua.

Zerua nere gainean, eta nere azpian Uhinak.

Zein Amets ederra, eguzkia jaisten ari denean!

Faust (altxatuz): Berriz ate naiz ilusioen jostailua?

Baduzuia Ernesten berri? Bisita egiten didanean Joanak ez du beste izenik ahoan, baina ez dakit, ez dakit. Hego haizearen pareko du gogoia. Gaur hau du kaxkoan eta bihar bertze zerbait arras diferentea. Ez dakit nola hain ezberdin izanik hain adiskide on izan gaitezkeen.

Hemengo gazte batekin dabil aspaldi honetan jolasten. Ezagutzen duzu. Mutil jatorra da benetan, baina politika arazoetan ere oso sartuta dabil. Dominik: errejenta gaztea duzu, eta ez dakit ez ote den, ahantz dezaten ni bezalaxe alaman batekin ibili izan dela eta ... Graziusa emaginari esker haurra galerazi zuela, orain me he eta fin erakusten duelarik sabela.

Herriko berri guztiez mintza nakizun eskatzen zenidan azken gutunean, eta ez dakit hala egiten ari naizen, barrenean daramadana ostikoka hasten zaidanean burua bertze ixtorioetan mulgitzen baitzait atsedean hartzeraino. Medikiak: erran dit ibilaldi luzeak eman behar ditudala, baina ez da giro kanpoan negu parte honetan.

Joan den astean Mikaelenian bi urteko miga, ogi bihi kolore, adarrak goitikoa, eta joarea lepotik zeukana desagertu da. Amildegiren batean hondatu ala ohoinen batek eraman ote du? Etxekoak ez dabilta kontent eta egun pareia igaro dute mendian, goiti eta beheiti bilao

Asteburuetan aitak erosita irakurtzen ditut arreta handiz atera berri den HERRIA aldizkarian gerraren albisteak. Antza, balirudike hartzaren ixtorioa errepikatzen ari dela, honen larrua duela aspalditxo saldua baitute. Miarritze aldean alemanerazko liburu eta txartelekin meta handi bat jaso zuten eta gero su eman zioten, Espainiak: o Inkisizio garaietan Auto de fe zeritzanak egiten zituzten eran. Badakizu ongiasko ez ditudala batere gogoko horrelako itsuskeriak, bazterretan gorrotoa hedatzeko bertzerik ez baitute balio. Zuk zenbateraino miresten eta zein nolako errespetuz zaintzen zenituen hemengo

elizak, jauregiak, arte eder lanak buruan daukat hala nola hemengo baserrietako bizitza baketsua.

Nola dabilta kontuak zure sorterri aldean? Gerra madarikatu hau amaitu bezain laister zatozkit korrika, hemen gu biok eta familia osoak esku zabalik hartuko zaitugu eta. Halere, noizpait Mikel eta bere lagun maltzurren jokaera dela medio higuingarria gertatuko balitzaigu herri ttipi honetako bizimodua, Bordele aldean har genezake Transatlantikoa eta itsasoa iraganez Ameriketara joan. Aitaren anaia bat Arjentina aldean bizi da, eta izkiribatu digunez diru puxkat bildua du, ez du seme-alabarik eta bozkarioz beterik errezibituko luke iloba maitearen senarra eta haurra bere etxalte handian.

Zure gutunaren berrien zain naukazu, egunero bizikletaz Donibane Qaraziko postatik datorrenari galdetzen diodalarik ostatura sartzen denero. Nere urduritasuna eta kezka nabarmentzen baitzait, ikusten dudana bezain laister, neuk deusere erran gabe berak kontatzen dizkit gerra gorabeherak eta nola dihoazen gauzak munduan barrena, ixtorioak eta mixterioak, egiak eta gezurrak, gerra urteak gezur urte direla ere jadanik ikasia eta aski sufritua naizelarik.

Elkarrekin betirako bildu gaitzeno har ezazu nere besarkadarik xamurrena, eta goraintziak zure aita-amei, laister aitatxi eta amatxi izanen direla jakiteak poztuko dituelakoan bainago.

Zure bihotz-bihotzeko Maddi.

Arnegin. 1945eko martxoaren 29an.

NOLA BORROKATU ZIREN JUDUA ETA MOROA UNNEN TABERNAN

Bai, jauna, bai.

IGANDE hartan Madriden suertatu nintzen. Bakarrik negoen eta egun osoa niretzat neukanez gero patxada osoz orduak eta eguna igarotzeko erabakia hartu nuen. Esnatu nintzenean eta eskumutturreko erlojura behakoa bota nionean oraindik goiz zela ohartu nintzen eta loti alferrarena eginez irratia biztu nuen ezkererantz mugituz tekla. Ordu erdi bat begiak itxita, goxo-goxo izara zuri artean eta manta beroen pean igaro nuen jauzi bat egin eta aski da esan nuen arte.

Hortzak krema zuriz estali eta ikasitako moduan garbitu, beheiti-goiti eta goiti-beheiti. Bizarra moztu krema zuria eskuz hedatu ondoren masailean, eta dutxa freskagarria hartu, ongi neurtuz xanpua, orain ur beroa, ez hain beroa, eta bukatzeko ur hotzez astinalditxo bat. Toaila goxoz lehortu, bizarrondorengo lozioaz igurtzi plaxta-plaxta bi masailetan eta orraztu

ondoren betiko eran banoa ohiko arropa garbiz, eta leihoak ideki ondoren kalera.

Madrideko kale zaharrek badute igande goizeetan halako xarma berezia. Ez da beribilen zaratarik entzuten. *El País* erosi nuen kioskoan. Idekita topatu nuen lehen tabernan sartu nintzen lasai mahaitxo batean eseri eta laranja zumoarekin batera kasfesnea eta txurroak dastatzeko asmoz.

Munduko gora-beherak ezin okerrago dihoaz. Gerra Afganistanen, gerra Iraken, gerra Afrikan, eta gu hemen behale lasai gisara. Eduardo Haro Tecglenen zutabetxo labur, estu, zorrotz, ezkor eta adimentsua irakurri dut mundu zabaleko berrien aurrean, albiste ilun eta tristeetan gehiegi sakondu nahi gabe.

Ordaindu eta goizeko eguzki printzen epela gozatu nahirik banoa Moyano aldapan gora, liburu kaxetetan geldituz eta denboraren poderioz erdi lizundu, erdi horixkatu diren liburuxka merkeak gainbegiraturaz. Hain da aukera haundia, ordea, eta ene poltsikoa hain urria, ezen nahi nituzkeen liburu guztiak erosteko adina dirurik ez daukadan. Musika eta bertso zaharretan, folklore iker lanetan aditua den zokoan gelditu naiz apurtxo bat eta Aita Donostiaren edizio zahar bat erosi dut. Ez da merkea, baina eztare oso garestia. Honekin gaurkoz ase dudala liburu zaharrekiko nire barrengo gutizia eta gogoa, uste dut.

Erretiroko parkean sartu naiz. Jendea, txandalez jantzia, korrika batera eta bestera, izerdi patzetan. Astia aprobetxatu nahiz edo, etekina beraien denborari. Gero hortxe omen datoz belauniko eta xurmioko okertzeak, ez

dakit nongo zain-tiratzeak, lehertzeak eta bihotzekoak. Ez al da, bada, ederrago, pasealari presarik gabekoen gisan ibilaldira luze eta arin bat ematea, zuhaitzak, jendea, jolasean ari diren haurrak, futbolean dabilzan sudamerikanoak, begi-ninieiei plazer emanez kontenplaztea eta dastatzea?

Ordu pare bat banabilela lasai eta barne-gogoetak beren bidea egiten ari dira nire buru ganbaretan. Uhartez-uharte ari zait nabigatzen gogoia eta hamaika egitasmo sortzen zaizkit itsas-ondotik ur azalera bere abiadura propioa hartu nahirik bezala, baina jakinik alde zurretik sekulan ez direla gauzatuko ahal izanen, eta beren etorkizuna iluna dela, hitsa, ezerezean amiltzea.

Bazkaltzeko garaia iritsi zait, eta fino bat azeitunekin Etxegarai kaleko *La Venencia* taberna zaharrean, horma zaharkitu eta duela menderdia baino gehiago zuritu gabean zintzilikatuta dauden posterrak behatu ondoren, ikusten dut ere delako makila luze ontzitxo estudunaren azpian errepublika garaiko banderatxoa – gorri-hori-more –ere mantentzen dela, ez dela utopia oraino erabat hil.

Santa Isabel kaleko ostatu batean igandeko menua hartzera eseritzen naiz, beste begirada bat egunkariaren errebista eranskinari emanez. Zerbeza eskatzen dut, zeren Madrileko eguratsa dela edo ez dakit zer, hemen beste lekunetan baino hobeto, oso ongi sartzen zait garagardoa. Garbantzuak eta inguruneko salda gustagarria dago. Haragi xerra, turnedoa patata eta biperrez jantzia ere ez dago gaizki, eta besterik gabe kafea eskatzen dut.

Kontua ordaindu eta banoa Reina Sofia Museora. Rafael Alberti eta bere garaiari buruzko erakustaldia ikusteko gogoz eta irrikitan nago. Krabelina eta ezpata. Egia esan ez dakit, nola lot daitezkeen bi elementu horiek, baina bai, gerra denean batzuek bi elementu kontrako horiek lotzea lortzen dute. Egia da ere agintariak eta esposizioak asmatzen dituzten komisariak kontrakoak ere intereseko deritzotenean irensteko ahalmen haundia agertzen dutela Non ote da giltza? Dena light egiteko jaidura xarmangarri eta liluragarri horretan, akaso? Erreginari eskainitako hamalaukoak erraiak irauli dizkit, ordea. Irudi eta pintura eder, komentariogile ezberdinen lanak, Albertiren ibilbide politiko, poema liburu, margo, marrazki, antzerki eta fotografiek, osatzen duten katalogo lodikotea erosten dut, museoan begiztatua, lasaiago etxean dastatzekotan.

Orain kargatu xamarra egon arren, Lavapies aldera jo dut baratxetto. Hemen urrats batzuek eman eta ohartu naiz metrondoko ingurunea uhartetxo bat dela, non kantoi bakoitzean jende kolore, jazkera eta hizkuntza ezberdinekoak dauden, baina beraien artean harremanik gabe. Bakoitza bere klanarekin bizi dela. Aldapa beheretik eskuinerantz dihoan karrika eskuin parte da eta ez daude hemen Bilboko Ibaizabalen bokalean bezala aberatsak, baizik eta atzerritarrak, txino, arabiar, pakistaniak beren dendatxo ideki, taberna zulo eta jatetxeekin. Ezkerraldean, aldiz, betiko madrileñoak, kastizoak, mobidako gazteak, ia denak entzuten ditudan solasen arabera, edo musikaz, edo antzerkiaz, edo zineaz edo telebistako ofizioetan murgilduak

dabiltzanak. Errairik gabeko ejekutiboen atzaparren pean mugitzen direnak, eta horrela esplotatuak izatea lortzen dutenean bozkarioz beterik direnak, gainera.

Aingura bota dut arratsaldeko ordu luzeetan eta hau amatatzeko asmoz futbol partida ematen ari den Abadia tabernan sartu naiz. Bete-betea dago. Giroa pil-pilean. Real Madrid –Barcelona ematen ari dira. Une batean Hierrok izugarrizko itsuskeria, sarrera gogorra egin dio Rivaldori. Jendearen oihuak. *Negro, lárgate. Sácale la tarjeta al negro. Mátalo.* Gaztetxo burgeskume batzuek dira horrela ari direnak karraxi egiten auzo langile honetan. Zerbait esan diet agertu nahian falta Madrیدهko jolakariarena izan dela eta erantzuna azkar eta gogor iritsi zait, *Vete a verlo a Barcelona.*

Ez dut eztabaidarik sortu nahi eta berez anka egiteari deritzot onena. Aldameneko tabernara sartzen naiz. Vinícola Mentrídana. Eseri naiz gaztain zur zaharrezko batean mahai izkinean eta ohartu espazioaz. Lau mahaitxo Bi zutabe eta mostradorean hamaika esaulki gora. Musika andaluza. Neskaxa gazte panpoxak eta mutil lirain, bizardun eta ile luzexta dutenak. Ondoko gaztetxo batek bere ixtorioak kontatzen dizkio neskato intelektual betaurrekodunari, gelditu ginen afaltzera, - dio mutilak- eta lehenbiziko egunean mogoiloi bat kontu kontatu genion elkarri.

Mahaineratzen zait txiribogintsa beltzarana. Ile gorrixka, begi berdeak, titi erreka eder eta jenerostuna, irri ezta. Entsalada eta postretako aker-gazta olioztatua eskatu dut Solaguen ardoz bustitzekotan. Une honetan bi gizon

adineko sartu dira tabernan. Bat ezaguna dut eta aurkezpenak egin ondoren mahaira gonbitatzen ditut, aretoan ia ez baita jada lekurik.

Italiako gora-beherak kontatzen ari zen ezezaguna edo ezagun berria, eta bi Italiak, iparra eta hegoa berexi ondoren, Aragoeko koroak eta espainolak Napolin, Sizilian izan zituzten harremanez mintzatu zitzaigun. Baita ere Veneziako jauregi, eliza, etxe zahar, kanaltto, tabernetako ardo zuriz eta tortilla pintxoez. *Regata* hitza beste asko bezala ere espainolek beraiengandik hartua daukatela. Bologniako parte zaharraz, jateko moldeaz eta antzeaz ere mintzatu ginen, eta ardo erronda bat joan eta bestea etorri ia Italia osoko arte eta ezagutzen genuen historiatxoari errepassoa eman genion.

Pintorea baitzen solaskidea, adierazi nion zenbat miresten nituen pinturaz bizi ziren margolariak, zeren eta benetan gogorra iruditzen zait erosleen esperantzan bizi izate hori. Manuel Palacios zen mintzalaguna eta Italian egiten omen zituen erakustaldiak esan zidan. Frankoren diktadurapean Partido Komunistako kide izandako hala nola presondegiko garaiaz eleztatu zitzaigun.

Une batean tabernako jabea, Unn izeneko emakume heldu dotorea, suediarra etorkiz inguratu zitzaigun eta beste erronda batera gonbitatu gintuen. Bere bizitzako zenbait pasaiatxo ere kontatu zizkigun hala nola bere herrixkatik hemezortzi urte zituela Parisera joan zenekoa. Animatua baitzegoen kanturen bat edo beste saiatu genuen, baina ez ozenki. Berak Iparraldeko Itsaso hotzetara zihoazen marinel kanta zahar bat ere abestu

zigun, gogoz gelditu nintzelarik jakin nahian zer zioten balea biltzaile haien hitzek.

Gau orduak aurrera zegiten heinean taberna husten zihoan eta halako batean eztabaidan bizian sartu ziren gazte batzuek. Egin ez genien arren kasu handirik bat inguratu zitzaigun eta ea musika arabiar haren ordeztu, ez ote genuen musika judu edo sefardirik. Bera judua ote zen galdetu genion eta baietz erantzun zuen modu txarrez. Unn-ek ihardetsi zion musika aukera kontuak zerbitzarien esku gelditzen zirela eta haiei eskatzeko. Haserre samar joan zen, etorri bezala, ez baikenion gogoko zuen erantzunik eman, nonbait.

Derrepentean han ikusten ditugu judua eta moro antzeko gazte lirain bat builaka eta elkarri alkandoratik helduz. Gu, kezkatu, mahaitik ere altxatu ginen horrelako okasioetan ospa egitea edo urruntzea izan arren aholkugarriena. Unn-ek esan zien horrela sesioari jarraitzen bazioten poliziari deituko ziola. Ez da erraza honelako memento haietan, jendea leporaino zurrutak jota daukanean, arrazoirik zuzenenak bilatzea baretu daitezkeen. Astelehen goizeko ordu txikietan sartuak ginen, eta moroak judua karrika estura gonbitatu zuen desafioka, *le voy a cortar las piernas*, zioen.

Jakin-guraz gelditu ginen zer ote nahiko zuen harekin, alegia, zangoak moztuko zizkiola perpausarekin, agian guk akabatu edota garbitu hitzen pareko izango zen. Lasaitzeko eskatu genion. Beraiekin zegoen marimutilla hantxe dantzari baten manerez, zirin-zaran zebilen, suspirioak boteaz, ipurdia sutan. Halako batean, hantxe bertan, moroa, palestindarra zena, lurrean

zetzan, dardarez, hil zorian. Unn-ek polizia deitu zuen eta gu erretiratu egin ginen.

Gau hartan ametsetan gizon gazte bat ageri zitzaigun lurrean espaloin bateko kantoiean burua zintzilik eta bihotzaren erditik galipote koloreko odola zeriola.

